

## Esperientziaren izena: “Harrera-astea: ikasteak batu, partekatzeak biderkatu”



### Ikastetxea eta lekua:

CDP Santa María de los  
Ángeles. Ikastetxe  
kontzertatua. Irakaskuntza  
-arloko kooperatiba.

Málaga

### Gauzatu zen data:

Ikasturteko lehen astean, 2019ko irailaren  
16tik 20ra. Esperientzia hau 2017-2018  
ikasturtean jarri zen martxan; beraz,  
hirugarren ikasturtea izan zen.

### Harremanetarako pertsona:

Isabel Castillo Blanco

### Harremanetarako datuak:

icastillo@santamariadelosangeles.es

### Ikastetxearen testuingurua, hezkuntza-maila eta ikasleen profila:

CDP Santa María de los Ángeles ikastetxe kontzertatu bat da, eta Málaga garatzen du bere irakaskuntza-jarduera. <https://santamariadelosangeles.es/>

Errebal ezagun batean dago (Carranquen), eta hiriko, probintziako eta probintziaz kanpoko hainbat lekutako ikasleek ikasten dute bertan.

Kooperatiba-sozietate bat da titularra, eta helburu nagusia bertako ikasleen hezkuntza integrala lortzea da. Prestakuntza arautua ematen da, aurrez aurrekoa, erdi-presentziala, urrunekoa eta enplegu-prestakuntza.

Aurrez aurreko prestakuntza arautua Andaluziako Juntako Hezkuntza Kontseilaritzarekin egindako hezkuntza-itun baten bitartez ematen da.

Irakaskuntza-kooperatibatzat eratu zen 1984an. Kooperatibismoaren printzipioen gainean eraikita dago, eta balio unibertsal hauek ditu oinarri: elkarri laguntzea, demokrazia, berdintasuna, ekitatea, elkartasuna, zintzotasuna, gardentasuna, gizarte-erantzukizuna, etab. Balio horiek guztiek jarduteko metodo bat iradokitzen dute, hezkuntza-praktika eta -ekintza konkretuak ekartzen dituena.

Prestakuntza arautuan, 20 talde daude; horietatik 6 batxilergoko taldeak dira, Osasun-zientziak eta Giza eta Gizarte-zientziak modalitateetakoak, eta, hain zuzen, talde horietan gauzatu zen esperientzia hau.

Irakasle-klaustroa 39 pertsonen osatzen dute guztira (16 gizon eta 23 emakume), eta horietatik 15ek (9 gizon eta 6 emakume) esku hartzen dute hemen aurkezten dugun ekintzaren garapenean.

Nabarmendu behar da ekintza hau soilik batxilergoko ikasleekin gauzatzen dela, eta maila horretan irakasten duten 17 irakasleetatik 12k aktiboki hartu dutela parte.

Beraz, klaustroaren % 38k eta batxilergoko irakasleen % 70ek bultzatu dute aurkezten ari garen ekintza.



## Esperientziaren deskribapen laburra

Zein zen  
xedeak?



Ikasturteko lehen astean, batxilergoko lehen mailako hiru taldeek eta bigarren mailako hiru taldeek taldean egin zuten lan, metodologia kooperatiboa, eztabaida egituratua eta ahozko aurkezpenak baliatuz, hezkuntza eraldatzailearen eta herriartasan globalaren esparruan aurrez adostutako gai bati buruz.

## Zer aSmoen?

Cure hezkuntza-proiektuaren helburu nagusia praktikan jartzea:

*“Ikastetxearen oinarrizko printzipioa da Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzaile bat, herritartasun global kritikoa, arduratsua eta konprometitua (bai pertsonalki bai kolektiboki) sustatuko duen gizarte-hezkuntzako prozesutzat ulertuta. Hezkuntza-mota horrek herritarrak ahaldundu eta mobilizatu nahi ditu eraldaketa sozial, lokal eta globaleko ekintza emantzipatzaileen garapenean, mundu justu bat, bidezkoa eta aniztasunarekiko eta ingurunearekiko errespetuzkoa eraikitzeko, pertsona guztiak askatasunez eta ongi garatu ahal izango diren mundua”.*

Batxilergora iristen diren ikasleek denbora bat behar izaten dute ikastetxe berrira egokitzeko, eta lagundu egin behar zaie pertsona-talde berri batean integratzen, eta metodologia berrietara, tresna teknologikoetara eta askori urrun geratzen zaizkien gaietara egokitzen.

Behar horien arabera, helburu hauek planteatzen ditugu:

- Herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailea sustatzea.
- Taldea, beren ikaskideak ezagutzea.
- Irakasleak ezagutzea.
- Ikastetxearen dinamika ezagutzea, eta dinamika horretara egokitzea.
- Lan-metodologiak ezagutzea eta barneratzea.
- Aplikazio teknologikoak ezagutzea, eta horiek erabiltzen ikastea.
- Talde berri horretako kide sentitzea.
- Erronka berri horiek gainditu ditzakeela sentitzea.
- Taldeari ekarpena egin diezaikeela sentitzea.
- Ikastetxeko bizitzan integratzea, eta bertako balioak bizitzea.



## Zer egin nuen eta nola?



Hasteko, ikasle berrien beharrei buruz eta ikastetxeak haien integrazio-prozesua errazteko duen arduraz hausnartu.

Hautemandako beharrei erantzuteko ekintza-plan bat egin.

Batxilergoko eskolak ematen dituzten irakasleen talde bati planteatu, esku hartzeko prest egongo liratekeen ikusteko.

Eta azkenik, Zuzendaritzari eta koordinazio pedagogikorako talde teknikoari (ETCP) proposatu.

Organo horiek onartu ondoren, plana gauzatzeari ekin genion.

## Zer lortu dut/dugu?



Proposatutako helburuak lortzeaz gain, irakasleak ohartu dira aurreratu egin dela irakasgaiak emateari dagokionez, eta, aurreko urteekin alderatuta, ikasleen jarrera hobetu egin dela bai metodologia berriak barneratzerakoan bai taldeetan integratzerakoan.

Bestalde, ikasleak sentikorragoak dira, eta hobeto ulertzen eta barneratzen dituzte ikastetxean sustatzen diren balioak; hala, gure gizarte-errealitatean ekintza eraldatzaile bat gauzatzeko aukeraren parte bihurtzen dira.

## Eskola-egiturako eta testuinguruko çzer elementu izan dira lagungarri edo oztopo lorpen horiek izateko?

Zuzendaritza-taldea laguntza bat da, proiektu honek zer abantaila dituen ikusten baitu, eta, horrez gain, ez du aste hori akademikoki galdutzat hartzen, inbertsiotzat baizik. Dena den, betetzen duen funtzioa eta proiektuan parte hartzeko modua zehaztuz joan behar da.

Irakasle gehienak laguntza bat dira, halaber, proiektu honek dituen abantailetan sinesten baitute. Gutxiengo bat baino ez dira oztopo.

## Zer ikaskuntza eta erronka izan ditut?



- Sistematizaziorako beharra, prozesu honen alderdi guztiak hobetu ahal izateko.
- Ebaluazio-mekanismoak azpimarratzeko beharra.
- Esperientzia hau zenbait prestakuntza-ziklotara zabaltzeko aukera.
- Herritartasun globalerako hezkuntzaren esparruan, erronka bat da ikasleak motibatuko dituen eta zenbait diziplinarekin konektatu ahal izango den gai bat bilatzea ere.

## Esperientzia hau prestatzen eta gauzatzen parte hartu duten pertsonek edo erakundeak

- Batxilergoko eskolak ematen dituzten irakasleen taldea
- Zuzendaritza-taldea

## Laguntzarako/ erreferentzia- rako baliabideak edo materialak

Amaierako azalpenen erakusgarri diren bideoak, erakusketak, aurkezpenak...